




## BAKOITZARI

## BEREA



### *Euzko-Foruak dirudi-ta*

Munduan ba-ditugu auzi batzuk, matara nastu baten antzen askatzeko gurtiz nail eta gaxkak diranak. Urtiñegi joan barik, gure artean be ba-dira olakouak ez gitxi. Igaz eta aurtan bater be ez da gitxi idatzi ta itz-egin gure aspaldiko Lege Zarra, Foruak, oinuri dirala-ta. Auzi bat dogu, txit korapillotsua, Foru-kontua; ez da itz-lar be, askabide erreza aurkitu geinkeona; ba-dau bere koska, be ne-garai larra, auzi-erri sotzekoa. Ta, alanbe, naitaez askatu bein urkuldu bearra da, gure artean bakerik sortu, irauan ano ta lotinik baldin bada.

Guztiok auzi bitri opa dogun euskal erri arteko bake ta alor aitza auzi-jaten daukun gaitza aintxiñako injustizi ta bidebutek batetik datorkiga, ta bidebukokeri orren susterrak aurkitu ta euskal bizitza len ebillen bide-zidortez ostera be jarri arte, nekez be nekez izango dogu gure egizko bake-abarrik mendietan, kalera

gure famili ta gizar-tean loratuta. Bereko bidea ukatu ta beste bat erretzen yakon uiolak berera jo oi dau barrito be lengo andapara bidea aurkitu arte. Ala-ala gure erriak be.

Labur: egoera larri bat dogu aspaldi danik euskaldunok. Larri-uztan eta gaitz onetiaz gaur danok konturatu gara; gu ez-erik, baita Madrid'eko Gobernuak be. Euzkadi ta gaitz dira, España'k, Euzkalerri ta Madrid'eko Gobernuaren artean, olako ezin-ikusitza naita irauten dau artezkeri; lege-kentze, orrek, guretzat zentzun bagea izaki, zauri gordiña, larra, mingotsa itxi eban, orain-ditza be odola geldieraz bageko zauria nurbait: urteak eta urteak al-di-gurpillaren iraultan doazan arren, zauri orren jario ez da geratzen. Euzkalerri arrigarr: nurbait biotzean ikututa zauritzen baldin ba'dogu, gurtia zailla dotu min-naigabe ori arindu ta osorik usatzen.

### *Lurjari osabide jarri nai*

Oruingo, baiña, len egin gaitakeriaz kontuan jansirik, Madrid'en be zerbait atondu ta obetu naita dabilzala dirudi. Euzkalerri dagan utduritasuna, ezin-egona, bidegabekeri orixegaitik auzi nuzen, Euzkalerri osoa sumindua bizi dala ikusiaz, zauriari osabidea ipitzi gurarik Gobernu aurkitzen dala esan daikegu. Auzi orri jarri gura dautsoezan aska-bideetatik bat rejolanismua da; ta da, eskualde edo errialde lez, España'ren agindupean, lege berezi batzuk emon eta bere kasa erri-gorabera ta gauzak eratu, artertzu munda dagizala. Antxiñatik nai dau onako zerbait Gobernuak, azken urteotan bater be. Errialde bakotzak dau bere nortasuna, bere berezitasuna; bere lege jatorrak ditu, gaitza, Euzkalerriak bere oituzko lege ta usadioak, bere Foruak. Zelan doan gaitza aldatuaz: len daga nai zan esku batean, Frantzia'ko matxinada ostean bater be; gaur zabalduaz doa beste pentsakera au, ots, errialde bakotzak atondu daizala bere barne dituan arazo ta auzietatik asko. Indar ta

arazo guztiak esku batean ez, baiña askoren pentzutan nai ditugu gaur-egunez. Gixiren nausigotik —oligarkiatik —askoren agintzera —demokrazira— dagigun oinkada, noski.

Pentsakera au oiñarrizat dala, rejionalismuari adore emoten ari dira, naiz-ta muker oraindik, Madrid'en bertan be. Or-emen ainbat didar entzuten dalako, ta beti didar bardintsua ez entzutearren be bada... Errialdekotasuna bizi-bizi daukagun auzia da. Onek ezta esan nai errialdea Estaduaren altzotik banantzen dala. Espaiña be rruan ere izan daitekez ainbat errialde, ta onein nortasunak be euren arazoen jabetasunak ez dau adierazoten naitaez alkarrekin apurtu ta banatzerik. Ez, erri bakotxak bere oitura, ekandu ta lege apartak eukitea, oneik maite izatea, eurokin bizi gura izatea, eurokin norbere bizitza politikazkoa, ekonomiazkoa ta gizartezkoa atondu nai izatea ez dozu pekatu, ez iñori ezer kentzea, ez batasunaren aurka joatea be. Ortik gora jo nai izatea, alan be, ez ei da erakunde bat osotu nai izatea, laiñozko asmakizun baten ames egitea baiño.

Euskaldunak ez dauksa sekula itxiko berea dauana eskatzeaz urteak zear eskatu dau, ta eskatuko be bai. Esan dogunez, Gubernuak emon nai izan dauksa kondairan zear itxurazko askabide azalpen bat Damoklere'n ezpata lez beti burugain daukan auzi orri; baiña gaur arteño emon diran, edota emon nai izan diran bideak geiegiz ala gitxiegiz erren geratuak izan dira, eta oneik be talde batzueri edo errialdeetako arazo batzueri buruz emonak bakartik. Legotik ona, baiña, osoan aldatu yaku gizartearen ertz askori begintzea, ta itzal izatea. Beiñolako legeak, goitik beerakoak batez be gaur ez dira naiko, ez dira onak, alkar aitu ta baketsu bizi izateko. Beste batzuen bearrean gagoz, pertsonak eta erriak.

Gora ta garrantzi aundia ezarten dautsegu gaur politikari ekonomiarri, izkuntzari, lurrari, oitura ta ekanduari. Errialde batzuek daukaz bere-bere dituan zerak, naitaezko ta ezin-baztertuak. Ez dira gaur goizekoak be. Euskalerrriari begira, adibidez, gaur izate ta edestian dagozanak dozuz zer guzti orreik: erri berea, Euskalerrria, noiznai izan demokrazi-zalea ta erriak berak, bere gora, egin dituan legez bizi da izan dana; bere izakera dau, be

jakintza, bere umorea, bere jolas-dantzak, bere kondaira ta kantak; bere literatura, bere erlejiño ta kultura, bere baserri-bizitza, arretzaintza, arraintza, industri, salerosketa, pentsakera, ibilkera, jazerakera, lanerako griña...

### Askatasun zale

Euskalduna beti izan da, edonok daki, askatasun zale porrokatua. Len orain eta beti. Beretzat gura dauana, gaiñera, besteentzat be opa dau. Or Simon Bolivar. Espaiña errialde askoz osotua dago. Bakotxak dau bere berezitasuna, izakera ezbaridiña aurki. Guk geuretzat nai doguna, beste orreintzat be nai dogu; orrela pentsatu izan dogu beti ta nunnai. Geuretzat naia beukie areik erabat. Biotz-zabal gara orretan, alajinko! Ba-da, orraitino, alderik errialde batetik bestera, Andaluzi'tik Euskalerrri'ra, esate baterako; ez gara bardin euskaldun bat eta kazerestar bat. Ez dira bardiñak arein oiturak, legeak, pentsakera, izkuntza ta guk daukaguzanak. Bakotxak bear ditu, beraz, bizitza atondu al izateko, bizi-molde ta bide ezbaridiñak. Bakotxak bear dau bere antolaketa, bere jabe izate berezia.

Auxe dogu emen argi dakusguna: Estadu batek, dala frantsesa, dala espainarra, ezin dagike bardin jokatu bere aginpide barruan ditun errialde guztiakin; autonomi-lege batzuk Madrid'en oretu, okiñak urunez ogia iduri, ta kitu. Bestera bear leuke izan, zentzuz jokatzekoan. Errialde bakotxaren bizi-moldea bake-zelaira eroan nai izan ezkerro, errialde orren bizitzari, kondairari, giro ta inguruari begiratu bear dautso. Ortik sortu, ernerazo ta garatu bear dabe bakoitzari berez dagokiozan lege ta arauak be, ez alderantziz; goitik beera ez, beetik gora baiño. Orrela bakarrik emoten yako bakoitzari berea.

### Gure Lege Zarra

Lege Zarra —ius vetus— ao betez esan oi doguzan itz bi dira, adierazpenez, esanguraz kuin-kuin. Zer? Guk, euskaldun guztiok,

mugaz andikoak naiz emendikoak, beti izan ditugun eta zaindu naiz ditugun oitura, usadio, lege berezi —Foru— bilduma, txorta berriak, neragarria. Danok dakiguna ta ez dakiguna. Ez da inok —ez errege, ez erresumak— emonikoa, geure erri-izatearen munitik berezkerne ta jalgia baiño. Noizkoak dira bizi garean lurra, lur-ama, gure erraza, gure izkuntza? Bardintsu nunbait: noizkoak dira gure legez zarrak? Ez dakigu. Au alan be ba-dakigu: geure nortasunaren atal geure odol eta arnasaren zerbait direala. Eta auxe, ain zuzen be guri kendu euskuena ta guk arrezkero, bipilki eskatzen dogu onean naiz txarrean. Geurea zana ta kendu euskuena, barrero eskuratu nai dogu. Auxe da gure auzia, askatu bear dana.

Guretzat Lege Zarra ta Forua, itz bi izanagaitik, erabat diran Adierazpen asko ditu Foruak, baiña guretzat auxe: Euskaldunak bere-bereak, familiak eta erriak sortzetik, izan dituan oitura usadioen betetzea. Ikusi, esaterako, Bizkai'ko Forua deritxona, azkenetik onela diñona: «oitura, usadio da, ta legetzat, forutzat ematen eben eta emoten dabe».

Ekandu ta usadio orreik, gure bizitza baizen zarrak, gure izkuntza ta jokabideak baizen antxiñakoak, oso berandu arte etziz idatziak izan. Bizkai'ko Forua, 1452'an idatzi zan aurrenik. Erriak antxiña-antxiñatik or ta emen oitura ta usadioz erabillitakoa legez iziz jarri zan. Ordurarte, millaka urteetan idatzi barik aoz-ao zaindu ebezan euskaldunak euren gauzak; gero, itzali ez eitezana ezin obeto zaindu, jokabide ta araudi bezela idatzi ta liburu gisan agertu ziran. Orrela, aurrerantzean errezago egin yaken antxiñakoa zaindu na zaintzea; edozein bizkaitar naiz eta beste euskaldun izan, zaindu eben lau naiz aterpe batzarrak egiñik, auzoak eta erritarrak emen oitura, usadio ta legeak alkarrí azaldu ta euren artean bete azaldu. Emen daukagu, ba, lenengo aoz-aozko forua ta gero idatzia.

### *Gernika'ko Zugatz-pean*

Ekiñaren ekiñez osotu oi da gauzea. Baita gure Lege Zarra zaindu, osotu ta betetea be. Ortarako bilketak egiten ziran, azkenekoan

ez dakigun arren, oso antxiñatik ziur asko. Gero pixkaka Gernika'ko rantza jo eben Bizkai'ko errialdeak. Oso zarrak dituzu Gernika'ko batzarrak, oiturak ontzat emon, barriak sortu, auziak erabagitu, gaizkiñak zigortu, aitor-semeak sariztu ta abar egiteko, ospatzen ziran batzarrak. Era bitakoak ziran: Batzar bereziak eta Batzar Nagusiak, azken gizaldietakoak beintzat. Auzo, eskualde naiz erri barrutietan eukiten ziran lenengoak, au da, Batzar bereziak, eta eleizate edo merinaldekoak eritxen onei, eleizalde edo-ta merinalde baten burutzen ziralako. Batzar Nagusiak, Gernika'n ospatzen ziran, eta eleizalde ta merinalde askotakoak parte artuta egiten ziranak genduzan.

Errialde ta erri bakoitzak eukan legetzat eurretik erabagitarako illabete, egun eta ordutan euren aldun, ordelari naiz batzarkideak bialtzeko ta batzarrean esku artzeko. Nortzuk ziran batzarkide orreik? Eta nok aukeratzen zituan? Dakigunez, amalau-amabostgarren mende barruan batez be, Bizkaia ta Gipuzkoa oiñaztarrak eta ganboatarrak eukezan naikoa zapalduta, bildurtuta. Alderdi bi orreitakoak agintzen eben, sarri istillu ta burruka izugarriak gure errietan sortu ta luze-azorik. Alderdi biok bialtzen zituen eleizalde bakoitxetik euren batzarkide, aldun eta ordezekoak. Alderdi oneik ondatu ziranean, alan be, erri bakoitxak aukeratzen ebazan bere ordelariak.

Batzar Nagusiak lenengo, Gernika'ko Zugatz-pean asi aurretik, Ezregoiti gaiñeko Idoibaltzaga auzunean ospatzen ziran, zugazpe agirian. Durango aldekoak eta Enkartaldekoak euren biltoki ta batzar bereziak eukiezan: Gerediaga ta Abellaneda. Leku ospetsuak, Marki. Gernika'n asi ziran bertan, batzarretan, artutako erabagiak egiten; erabagi orreik, ostera, naiz eta idatziak izan, oitura-ekandua ta usadioen arauz ezpa-ziran, urrengo batzarrean aldatuak izan oi ziran. Batzar Nagusiak zeatz-meatz jokatu eben onetan, oitura zana zaindu ta etzana baztertuz.

Nortzuk osotzen eben Batzar Nagusia? Nortzuk ziran urte biok bein Gernika'n batzartzen ziranak? Zortzi merinaldetan zatituta egoan Bizkaia: Markina, Zornotza, Arratia ta Bedia, Uribe, Bus-

turi, Orozko, Durangoaldea ta Enkartaldeak. Batzar Nagusiaren azken araudiak 110 batzarkide ontzat artzen zituan Bizkai osoan eleixaldetatik eta Enkartaldeko udal edo uri batzarretatik. Osoan osotzen eben ba Batzar Nagusia. Eta oneik autatzen eben —Jaun-erriko— Gobernua urte bitan Bizkaia'ko arazoak jagon, zuzenduta jaurriko ebazana. Gobernua edo Jaurlaritza Nagusia esaten jaikon oni. Jaurlaritza —Regimiento General— onek buru bezala Korrejidora bat eukan, Bizkai'ko Jaunak edo Erregek ipinitako Emendik sortua dogu geroago Foru Aldundia be.

1837'eko iraillaren 6'an Kortiak 8emon eben legeari jarraitu Foru-Diputaziñoak geldi-erazo ziran Probintzi'ko Diputaziñoak jarriaz. Orrez gaiñera, orduantxe artu eban Madrid'eko Gobernu aduanak lengo lekuetatik kendu —Orduña'tik eta Ebro'tik nait bait— ta itxasaldeetan eta mugetan jarteko erabagia. Orregaiñ ordukoak uste eben euskaldunen Lege Zarretik zerbait beintza oiñean gelditzen zala, orrela Bergara'ko besarkada ostean be; beñña amaika naste ta gorabera izan zan 1869'tik 1869'ra batez be baiña Isabel II'garrena erregin aulkitik porrot eginda jausi nanean, berez sortu zan gerra gordin zakarra, ta bigarren karlista liberalen arteko burruka amaitu zanean, 1876'an, euskaldunen foruak ere osoan suntsitu ziran. Gizaldi osoa igaroa da arrezketa ta ortan gagoz oraindik, Foru bage.

### *Batzarrak barriro be?*

Eun urte beteak emon dauz Euskalerrriak bere buruaren ez dala. Gernika'ko Batzar etxea utsik. Beti lenari begira. Zurrinka, ezin egonean, zauriturik jagi-ezinda dagoan zezenaren tzean. Urteetan beti izan ditu barne-istillu, naste-borraste, malka ta zirriborro izugarriak, berezkoa danez. Azken guda autan eta ostean be, Euskalerrriak eten gabe eskatu dau berari zorrakona. Eta, asko ez dala, eska ta eska, zerbait jadetsi dauala daiteke. 1975'eko azillean Gobernuak lege bat emon eban

kai ta Gipuzkoarentzat gobernu-lege berezi bat ikasi ta eratzeko Batzorde bat izentatuaz. Onek burutu eban bere egitekoa ta 1977'eko epaillaren 17'an Madrid'eko Boletin Ofizialak lege-erabagi bat azaldu eban Bizkai ta Gipuzkoa Probintzietarako, lenago legez, Batzar Nagusiak oiñean jarriaz.

Lege-erabagiaren lenengo atalak au iñoan: «Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko Probintzien ardura berezien jaurbide —gobernu— ta diru-eragiña Probintzi bakotxeko Bazkunai dagokie, Batzar Nagusi ta Foru-Diputaziñoetan taiututa». Zer esan nai dau onek? Gaurkotuta, jakiña, gure Lege Zar ta Foruak berbiztuko ete dira? Orrela balitz!

*Aita Onaindia*

Euskalerrriko burni-denda

**FERRETERIA UNCETA, S. A.**

**E I B A R**

Tel. 71 10 00 (Bost linea)

Teleg. "Ferrunceta"

Apdo. 18

Ibarrecruz, 14